




## Etxebizitzen gaineko hipotekak %5,3 gutxitu ziren

### Etxebizitzen gaineko hipotekak

Urte bakoitzeko urtarriletik azarora metatua




Iturria: INE.

**Etxebizitzen gainean eraturako hipoteken kopurua %5,3 murriztu zen azaroan, aurreko urteko hil beraren aldean.** Hala ere, urteko lehen hamaika hilabeteetako kopuru metatua 21.500 hipoteka baino gehiago formalizatu ziren, 2010etik izandako erregistrorik onena.

## Hoteletako gaualdiek igotzen jarraitzen dute

### Hoteletan igarotako gaualdiak

Urte bakoitzeko abendua. Mila



Iturria: Eustat.


**EAEko hotel establezimenduetako gaualdiak %30,7 handitu ziren 2021eko abenduarekin alderatuta.** Era berean, urte osoko datuak batuta, ostatu gauen kopuru hori ia 6.500.000ra iritsi zen, hots, datuak daudenetik inoiz jaso den erregistrorik handienera.



## Industriako prezioen igoera berriro apaldu da

### Euskadiko industriako prezioak

Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

**Abenduan, IPRIaren urte arteko aldakuntza tasa %13,4 izan zen,** hau da, 4,4 puntu jaitsi zen aurreko hileko datuaren aldean. Horrela, industriaren prezioek 2022 urte osoko erregistrorik txikienarekin amaitu zuten urtea. Apaltzeko joera, bereziki, energiaren atalean hauteman zen.

## Euroguneko PMI konposatua 50,2an kokatu zen

### Euroguneko PMI konposatua

Indizea



Iturria: Markit.

**Euroguneko PMI konposatua 50,2 puntutan kokatu zen urtarrilean, abenduko datua baino bederatz hamarren gorago.** Horri esker, hedapen eremura itzuli da, nahiz eta jardueraren hazkundera oso mugatua izan. Bai zerbitzuek bai manufakturrek beren indizeak hobetu zituzten.